

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Hasierako onespina ematea zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu tasak arautzen dituen ordenantzako "musika eskola" epigrafean aldaketa egiteari

Udal honek, 2025eko otsailaren 12an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespina ematea erabaki zuen zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzako "musika eskola" epigrafean aldaketa egiteari.

Interesdunek jakin dezaten argitaratzen da, espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Halaber, jakinarazten zaie erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez badute, ordenantza hori behin betiko bihurtuko dela, espedientea jendaurrean egoteko epea igaro ostean.

Alegria-Dulantzi, 2025eko otsailaren 13a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA